

# IKUSMEN URRITASUNA

## Definizioa

Ikusmen Urritasuna kontzeptuaren barne, bi talde bereiztu behar dira:

-itsuak diren pertsonak : ikusmen arrastorik ez dutenez beren inguruarekin harremanak izateko beste zentzumenak erabiliko dituzten pertsonak eta

-itsutasunera iritsi gabe, ikusmenaren egituran eta funtzionamenduan alterazioen bat duten pertsonak, ikusmen arrastoa gordetzen dutenak.



## Sailkapena eskolari begira:

Sailkapen desberdinak egon arren, orientabide moduan honako hau proposatzen da, bi muturretakoak baztertuz ( pertsona itsuak eta ondo ikusten dutenak):

A) Argia sumatzen duten pertsonak.

B)Behatzak zenbatzeko gai diren pertsonak .

Bi maila hauetan dauden pertsonak itsutzat hartzen dira termino hezitzaileetan eta ukimena erabili beharko da bere heziketan, duten ikusmen arrastoa zirikatuz.

C) Begietatik gertu objektu tridimensionalak sumatzeko gai direnak.

Maila honetan beltzean irakurtzeko gai diren pertsonak kokatzen dira, makrotipoak eta laguntza optikoak ere behar dituztelarik. Bere ikuskera zirikatu egin behar da eta honen garapena funtzionalitate terminoetan burutu beharko da.

D)Laguntza optikoen bitartez inprimatutako hizkia sumatzen dutenak

Maila honetan daudenak beltza kodigoan burutuko dute bere heziketa garapena eta

laguntza optikoak erabat gomendagarriak dira.

## Etiologia

Agerpenaren unea, jaiotzetikoa edo ondorengo agerpena, oso garrantzitsua izango da. Izan ere, jaiotzetikoa bada, pertsona horrek ez du izan ikusteko sentsazioa eta bere buru prozesua eta pertsonalitatearen osaketa beste sentsazio eta esperientzia desberdinetan oinarrituta daude (entzumena, ukimena...), ikustea zer den jakitera iritsi gabe. Aldiz., eskuratutako itsutasuna dutenek, beriz, ikusmen esperientzien bidez (ikusmeneko oroimenak) lortzen dituzte ezagupenak. Hau oso baliagarria da hezkuntzan, izan ere, eskuratutako itsutasuna duen ikasle batek, koloreak, mapak eta inprimatutako hizkiak gogora ditzake. Era berean, emozionalki, laguntza eta onarpen beharrak askoz handiagoak dira eskuratutako itsutasuna duten ikasleentzat, jaiotzetik itsuak direnentzat baino.

Ikusmen urritasunaren kausak anitzak dira, inplikaturako prozesu eta lesioaren jatorriaren arabera.

## Etiologiaren sailkapena:

### Ø Herentziazko jatorrizkoak :

Miopia degeneratiboa.Albinismoa (pigmentuaren gabezia) Acromatopsia (kolorekiko itsut.) Aniridia ( gutxi garatutako edo irisaren gabezia).Retinoblastoma ( retinaren tumorea )

### Ø Haurdunaldian garatutakoak:

Anoftalmia (begiko globoaren gabezia edo garapen urritasuna) Microftalmia (begi txikia) Katarata kongenitoak (kristalino opakoa)Retinaren afekzioa eta bereziki makulan (rubeolaren ondorioz)

### Ø Istripu bidezko begiko gaixotasunak

Katarata traumatikoak (kristalinoaren opakotasuna) Retinaren jalgidura

## Ezaugarriak

Ikus urrit. duen umearen ezaugarri aipagarriena zera da: ikus pertzepziorik ez edukitzea. Honen ondorioz, eta batez ere hezkuntza erantzuna ez bada honekiko

egokitzen, ezaugarri bereziak izan ditzake hainbat arlotan, besteak beste:

- Adimenaren alderdian:

Ume itsuak hezkuntza zailtasunak izaten ditu alde batetik, imitazioa egiteko ezintasuna daukalako eta bestalde, kanpo ingurunearekiko motibazio falta dela eta. Imitazioaren faltak umearengan egozentrismoa, pasibotasuna eragiten du. Kanpoko ingurua ez da erakargarria beraiantzat, eta honek inhibizioa eragiten du.

- Hizkuntzaren garapenaren alderdian:

Orokorrean, nahiz eta salbuespenaren bat edo beste egon, esan dezakegu ikus urritu gehienek ez dituztela ezberdintasun esanguratsuak ikusleekin konparatuz hizkuntzaren garapenean. Baina batzuetan agertzen dira aipatzea merezi duten arazo batzuk:

- Ikusleok hitz edo esaldi batzuk esaterakoan erabiltzen ditugun keinuen falta.

- Berbalismoa, hau da, hitzak erabiltzea inplikaturik dagoen kontzeptua erabili izan gabe. .



- Orientazioaren eta mugikortasunaren arloan:

Menpekotasuna da ikus minusbaliotasunen bat duen pertsonak pairatzen duen arazorik larriena. Jaiotzaz itsua den haurrak hasiera-hasieratik egiten dio aurre menpekotasunari.

Ondo ikusten duten ikaskideekin alderatuta, itsuak diren edo ikus minusbaliotasun larriak dituzten haurrek beranduago garatzen dute espazioaren antolaketa antzemateko gaitasuna, esate

baterako, hurbiltasuna, ordena, objektuen arteko tartea, etab.

### **Eskuartzea:**

#### **A) ikusmen urritasuna duten pertsonekin praktika onerako 12 aholku:**

- “Ikusi duzu”, “ikusi nahi duzu”... bezalako espresioak erabiltzeko beldurra kendu.

- Ikusmen urritasuna duen pertsona batekin gaudenean eta bakarrik utzi behar dugunean abisatu egin behar zaio, ez baita da oso atsegina bakarrik hitz egiten geratzea.

- Ez zaie asmakizunetara jolastea gustatzen. Pertsona itsu bat edo Ikusmen urritasuna duena dagoen lekuren batera iristean ez erabili “badakizu nor naizen” bezala espresiorik. Agurtu egin behar da eta nor zaren esan.

- Ez da suposatu behar Ikusmen urritasuna duen pertsona batek beti laguntza behar duenik gauzak egiteko orduan. Beraz, lagundu aurretik galdetu egin beharko diogu laguntzarik behar duen ala ez.

- Ikusmen urritasuna duen pertsona batek ondo entzuten eta hitz egiten du, beraz ez da beharrezkoa garrasi egitea eta bere ordeztu erantzutea.

- Ikusmen urritasuna duen pertsona bati aurkeztean edo eta hirugarren pertsona bat aurkeztean, aurkezpen hori nola gauzatuko den esan behar da, eskua emanaz, etc.

- Ordena beharrezkoa da Ikusmen urritasuna duen pertsona batentzat. Ez dira objektuak lekuz aldatu behar aurretik esan gabe.

- Ikusmen urritasuna duen pertsona batekin zoazenean, utz iezaiozu berari heltzen zure besotik (ukalondotik), informazio gehiago jasoko du bideak izan ditzakeen oztopoi buruz.

- Objektuen kolokazioa zein den adierazteko ez duzu “hemen”, “han”, bezalako espresioak erabili behar, “zure aurrean”, Zure ondoan, eskumara”... bezalakoak baizik.

- Ikusmen urritasuna duen pertsona bat arrisku batetara gerturatzen ari dela ikustean ez iezaiozu urrutitik garrasirik egin, hobe da gerturatzea, berehalako arriskua ez den bitartean.

- Ate eta leihoak itxirik edo zabalik egon behar dute bere osotasunean, baita armairuak ere.
- Platerean janariaren lekua adierazteko, hau ordularia balitz bezala erabili behar da. (adib: "platerako 12etan patata frijituak dituzu eta 6retan okela").
- Edariren bat botatzen badiozu edalontzian, esan egin behar zaio, konturatzen ez baldin bada berak berriro botako du eta.
- Interesgarria da objektu berriren bat erakustean, hitzez deskribatzeaz gain, berak ikutu dezan posible den bakoitzean.

**b) Irakasleentzat orientabideak:**

- Erreferentzia puntu finkoak eman tokian kokatu ahal izateko (erreferentzia puntua bakarra da, errez aurki daiteke eta espazioan eta denboran iraunkorra da).
- Objektu eta altzariak oinarriko kokapen finkoan mantendu, edozein aldaketaren berri emanez.
- Toki zabal eta erosoak eman bere material espezifikoa ordenatua izan dezan.
- Inguruaren azterketa egitera eta ezagupenera bultzatu.
- Eskuak konstruktiboki okupatuta izan ditzan saiatu, autoestima eta isolamendua saihesteko.
- Idatzizko edozein informazio ahoz indartu.
- Lanak ere neurrian baloratu, gainbalorapenak ebitatuz.
- Eskolarizazio lehen urteetan taldekako jokoak bultzatu eta antolatu, horietan paper aktibo bat izango duela ziurtatuz.

**c) Hezkuntza erantzuna:**

Ikusmen urritasunak dituzten ikasleengan beharrezkoa da zenbait helburu, eta eduki espezifikoko biltzea, planteatzen dituzten hezkuntza premiei erantzun ahal izateko. Hiru multzotan bil daitezke hauek:

- 1.- Eguneroko bizitzako orientazioa, mugikortasuna eta honekiko trebetasunak

- Ikaslea bere ohiko ingurunean autonomoki ibil dadin lortzea.
- Familiaren lankidetzarekin, elikadura, garbiketa eta ordena ohituretan autonomia lortzea.
- Pertsonarteko harremanak erraztea.

**2.- Ikusmenaren entrenamendua**

- Posiblea denean, ikaslearen ikusmen gaitasuna hobetzea, horretarako ikusmen esperientziak sortuz eta ikasleari bere oroimenean biltzen ikas ditzan lagunduz. Irakasle espezialistaren laguntza (CRI)



**3.- Tekniken ikaskuntza eta material espezifikoa maneiatzea**

- Anbliopia duen ikaslea, **optika aparatu ezberdinen maneiatetan** entrenatzea, gordetzen duen ikusmen geldikina ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta funtzional bilakatzeko.
- Ukimenezko bereizketan entrenatzea, **Braillearen** ikaskuntzaren aurreko urrats gisa, ikusmen geldikin funtzionalik ez duten ikasleen kasuan.
- Beharrezkoa denean irakurketa eta idazketa Braille sistemaren bidez eskuratzea. Irakasle esp.= ardur

**d) Ikusmen arrastoa duten pertsonen informazioa eskuratzeko dituzten errekurtsoak:**

Argitasuna edo iluminazioa

- Ikusmen baxua duten pertsonentzat laguntza ez optiko garrantzitsuena argi kalitatea eta kantitatea dira. Argi naturala ez denean egokia bere gutxitasunagatik, argi artifiziala jartzea beharrezkoa izango da.
- Argia inprimakiari zuzendurik egon behar du eta ez du erreflexurik eman behar begietan, kontrako kasuetan itsutzeak emango dira.

### Kontrasteak

Kontrastea koloreak zehazten du. Beraien arteko konbinazioek kontraste desberdinak sortuko ditu. Kontraste hoberenak txuri-beltza eta hori-beltza bikoteak dira.

### Imajinaren handitzea

Imajina handitzeko hiru era desberdin daude:

- Objektua begietara hurbildu. Subjektuak bere objektuarekiko distantzia aldatzen du era natural batetan, adaptazioa sortuz.
- Objektuaren imajina era optiko batez handitu, lente baten bidez (lupa, katalajo...)
- Objektu eta imajinaren tamainaren handitzeak.

### **e) Gurasoentzat orientabideak:**

- Haurrari bere desberdintasunarekin bizitzen erakutsi.
- Etxean gauzak leku berdinean edukitzen saiatu eta aldatzen badira beraiei jakinarazi.
- Hitz egiterakoan ahalik eta informazio gehien ematen saiatu.
- Beste seme-alabekin ez konparatu. Ez utzi familia pertsona itsuaren menpe egotea gupida dela eta.
- Haurrak ikusmena erabiltzera zirikatu eta motibatu.
- Umeari gauzak esperimintatzen uztea, jakin dezan nora ez den hurbildu behar edo zer ez duen ukitu behar.
- Portaera ereduak eta jokoaren arauak gainontzeko haurrak bezala jarraitzea eskatu.
- Egoera bakoitzak eskatzen duen portaera arautua erakutsi eta eskatu (adib. hitz egiten zaionean aurpegira begiratzea....)

### **Bibliografia:**

- ROSA, A; eta OCHAITA, E: (1993) *“Psicología de la ceguera”*. Alianza. Madrid.
- BATZUK (1996) *“Deficiencia visual: Aspectos psicoevolutivos y educativos”* Ed. Aljibe Madrid
- EUSKO JAURLARITZA: (1992) *“Ikusmen zailtasunak eta*

*Hezkuntza Premia Berezia*”  
Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Gasteiz.

- LEONHARD. (1992) *“El bebé ciego. Primera atención. Un enfoque psicopedagógico”* Ed. Masson

### **Helbide interesgarriak:**

- Ø Gipuzkoako I. B.T. ( Itsuentzako Baliabidetegia) DONOSTIA  
Telf: 943 399821  
Fax: 943 394447
- Ø ONCE Erakundea  
Etxaide kalea,14  
Telf: 943 420101  
Fax: 943 427724  
20005 DONOSTIA

### **Internet:**

- [www.once.es](http://www.once.es)
- [www.handialog.com](http://www.handialog.com) : Adaptación de material informático para deficientes visuales.
- [www.ibsa.es](http://www.ibsa.es) : Federación internacional de deportes para ciegos